

NIRE DESKRIBAPENA

12 urteko neska alai bat naiz eta Legorretan bizi naiz. Anaia bat eta ahizpa bat daukat, nire ahizpak June du izena eta nire anaiak Endika.

Nik nahiz eta asko jan, argala naiz. Nire ilea kizkurra eta beltz kolorekoa da. Begiak, handiak eta berde marroiak ditut. Sudurra ez dut oso handia ezta oso txikia ere. Belarriak nahiko handiak ditut, ezpainak aldiz txikiak.

Nik jertse zuri bat daramat, beso bakoitzean bi marra urdin ditu eta jertse erdian "team" jartzen du gorriz. Alkandora zuri bat ere daramat, lotzeko botoi batzuk ditu aurrean eta sorbalda bakoitzean marra urdin bat du. Galtza bakero beltzak ditut eta eskumuturrean erloju beltz bat daukat. Zapatilak zuriak dira eta atzean marra berdetxo batzuk ditu.

Irakurtzea ez zait asko gustatzen baina oraingoz Jara liburua asko gustatzen ari zait. Nik uste dut nire gogokoena izango dela. Nire abeslari gogokoena Ed Sheeran da. Niri gehien gustatzen zaidana dantzatzea eta monozikloan ibiltzea da.